



CÓRCOLES OLAITZ, Edorta

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Manuel Lardizabal 2  
20018 Donostia  
edortantar@euskalnet.net

BIBLID [1137-1951 (2007), 16; 17-22]

Sarrera eguna: 2006.04.18  
Onarpen eguna: 2007.01.19

# Erromatar mendebaldea: ingurapen linguistiko bat

(The western part of the Roman empire: a linguistic approach)

**E**rromak, errepublikaren azken bi mendeetan batik bat jasandako zabaltze prozesuan, herri ugaritako hizkuntza ezberdinekin egin zuen topo. Hizkuntza hauekiko jarrera irekia izan zen kasu gehienetan, baina, paradoxikoki, erromanizazio bide bezala erabili zituen. Honela, latinizazio prozesua era natural batean eman zen, nagusiki arrazoi pragmatikoen (komenigarritasunak) bultzatuta. Inperioko mendebaldean *lingua franca* bihurtu zen heinean, beste hizkuntzek, gutxinaka, galdu egin zuten beren eragina eta, azkenik, gehienak desagertu egin ziren. Inperioren latinizazio papera eliza katolikoak hartu eta burutu zuen.

**Giltza-hitzak:** Erromatar Inperioa. Hizkuntzak. Latinizazioa.

**D**urante su proceso expansivo, especialmente en los dos últimos siglos de la era republicana, Roma tuvo contacto con numerosas lenguas. La postura ante éstas fue, en la mayoría de los casos, abierta, utilizándolas, paradójicamente, como medio de romanización. De este modo, la latinización se produjo de un modo natural, inducida por razones pragmáticas. A medida que se constituyó en *lingua franca* de la porción occidental del imperio, las otras lenguas se fueron debilitando, llegando en la mayoría de los casos a desaparecer. El papel latinizador del imperio fue desempeñado por la iglesia católica.

**Palabras clave:** Imperio Romano. Lenguas. Latinización.

**P**endant son processus expansif, particulièrement dans les deux derniers siècles de l'âge républicain, Rome avait le contact avec de nombreuses langues. L'attitude avant ceux-ci était, dans la majorité des cas, ouverte, les utilisant, paradoxalement, comme la voie de romanisation. Ainsi le latinisation était un processus naturel sous l'influence des raisons pragmatiques (cela doit dire, la convenance). Comme a là été constituée en *lingua franca* de la partie occidentale de l'empire, d'autres langues l'influence perdue et, dans la majorité des cas, disparu. Le rôle latinisateur de l'empire a été pris par l'église catholique, qui a atteint le processus.

**Mots clés:** Empire Romain. Langues. Latinisation.



## 1. Sarrera

Hizkuntzen fenomenoa –eta honela, ikusiko dugun bezala, elebitasunarena– erromatar munduan aztertze momentuan, beharrezkoa da antzinako hizkuntza eta botere politiko kontzeptuen inguruan gogoeta leun bat egitea.

Gaur egun, estatu-nazioaren ingurune eta pentsamoldea kontuan harturik, hizkuntza nortasun nazionalaren funtsezko elementu bat bezala azaltzen da. Harreman hau pentsalari erromantikoek jadanik antzeman zuten, orain dela bi mende. Hizkuntza unibertsalen eraginez bazterturik, jatorrizko hizkuntzak paper berri bat jokatzeko hasi ziren izaera nazionalaren garapenean<sup>1</sup>.

Nahiz eta gogoeta hauek XIX. mendean hedapen zabal nahiz sakona izan, berez, antzinatek zetorren ideia bat garatu besterik ez zuten egin. Honela, ingelesek gaelliarraren aurka izandako jarrera, edota Carlos III.ak ketxuaren aurka, hizkuntza batasun sinbolo bezala erabili zenaren froga argizat har daitezke.

Erromatar inperioko lehenengo belaunaldien egoera adibidetzat harturik<sup>2</sup>, eta garai hartako hizkuntzek jasaten zuten tratamendua aztertuz, estatu nazio modernoek ematen dutenetik guztiz aldentuta dagoela somatu daiteke. Hizkuntzari buruzko araudi baten eza, honen frogatzat har genezake. Lurralde berdinean ematen zen hizkuntza ezberdinen arteko existentziak ez zuen, inolaz ere, erromatar boterearen murriztapen bat suposatzen; are gehiago, erromatar botereak berak ez zuen hala ikusten, eta sarritan ofizialki onartu eta bultzatu zuen elebitasuna, askatasun osoz, jatorrizko hizkuntzak erromatar instituzioak ezartzeko bide zuhur bat bezala erabiliz. Honela, latinaren zabalpenaren funtsa ez dugu inposaketa batean aurkituko –nahiz eta salbuespenak izan–, batez ere merkataritzan oinarritzen diren eta sarritan

hiriaren fundazioen atzetik aurki daitezkeen<sup>3</sup> arrazoi praktikoko batzuetan baizik. Erromatik isurtzen zen eragina nahikoa zen Hiriak kontrolatzen zituen lurraldeetako biztanle gehiengoarentzat latinaren ezaguera beharrezkoa –edo gutxienez oso kome-nigarria– egiteko<sup>4</sup>, bere zabalkuntzarako bidea libre utziz.

Artikulu labur honen intentzioa, gure ingurune zabalean aurki zitezkeen errealitate linguistiko ezberdinen irudi orokor bat marraztea izango da. Honen bitartez, jatorrizko institutu juridikoen iraupenari buruzko zertzeladaxo batzuk aipatuko dira, nahiz eta kasu gehienetan oso eskasak izan edota iraupen zalantzatsua eduki. Hau guztia, erromatar mendebaldeko erreferentzia bezala harturik, batez ere jatorrizko hizkuntzen dispersio linguistikoa zela-eta, latinaren ezarpenaren sustraiak sakonagoak zirelako<sup>5</sup>.

## 2. Hiriaren egoera

Erromatarrek, ezagutzen dugun historia kontuan harturik behintzat, oso garaiz ezagutu zuten elebitasunaren esperientzia. Beren mugak zabaltzen zituzten heinean, esperientzia honetaz baliatu eta egoera linguistiko berrietara egokitu ziren. Honela, esan bezala, hasieratik naturaltasunez onartu zuten elebitasuna. Hasiera hori, hain zuzen ere, Hiriaren lehenengo zabaltzearekin erlacionatu beharko genuke, monarkiaren garaian.

K.a. VIII-VII. mendeetan –hau da, Erromaren fundazio mitikoaren lehenengo belaunaldietan–, latindar eta sabindar etniek osatzen zuten Erroma hiriaren biztanleriaren gehiengoa<sup>6</sup>. Honela, hizkuntzaren ikuspegitik, jatorrizko latinak sabindarraren eragina jaso zuen, nahiz eta bi hizkuntzen arteko elkarbizitza garaia Historiaurrearen iluntasunean galdurik egon. Bestalde, Erromaren fundazioaren mitoak etruriarren eragin handia jasan zuenez<sup>7</sup>, logikoa da eragin honek hizkuntza arloan bere papera jokatu zuela pentsatzea. Ikuspegi honetatik, Hiriak K.a. VII. eta VI. mendeetan jasandako eraikuntza prozesua mugarriztat

1. Pentsamolde honek dakarren arriskuekin, nazio eta hizkuntza kontzeptuak nahastean. Ikus MITXELENA, Koldo. “Las lenguas y la política”. In: *Lengua e historia*. Madril: Paraninfo, 1985; 182-184 orr.
2. Eleaniztasunaren problematika lehenengo zibilizazioekin hasi zen. Erromaren kasua eredutzat har daiteke, gure ingurunean duen eragin historikoa dela-eta. TXURRUKA, Juan. “Lenguas y Derecho en la antigüedad”. In: *Eleaniztasuna eta teknika legegilea*. Gasteiz: Eusko Jaurjaritza, 2001; 23. or.
3. POLOMÉ, Edgar C. “Linguistic situation in the western provinces”. In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 510. or. Hala eta guztiz ere, salbuespenak aurki ditzakegu, adibidez Claudiok hiritartasuna lortzeko ezarritako debekua latina ez zekitenean gainean; ikus PANOSA, Isabel. “Elementos sobre la fase de bilingüismo y latinización ibérica”. In: *La Hispania prerromana*. Coimbra, 1994; 219. or.
4. Antzeko fenomeno bat suertatuko da ekialdean, non grezierak antzinatek jokatu baitzuen mendebaldean latinak duen papera. Hala eta guztiz ere, bi hizkuntzen arteko elkarbizitza eman zen lekutan –batik bat, esan bezala, ekialdean– elebitasuna faktore elkartzaile bat bezala ikus daiteke, hurrengo orrietan ikusiko dugun bezala.
5. Batez ere elizaren eragina zela eta, latinizazioan erreminta erabilgarri bat aurkitu zuen. MITXELENA, Koldo. “Romanización y lengua vasca”. In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 158-159 orr.
6. TXURRUKA, Juan. *Zuzenbide Erromatarren sarrera historikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994; 28-29 orr.
7. RASCÓN, César. *Manual de Derecho Romano*. Madril: Tecnos, 2000; 44. or. Erromatar monarkiaren sinbologiak berak etruriarren eragina ere jasan zuen, janzkeran (*toga praetexta*) edo jarlekuan (*sella curulis*). Ikus TXURRUKA, Juan. *Zuzenbide Erromatarren sarrera historikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994; 25. or.

jo genezake. Garai hartan, etruriar teknikari ugari joan ziren Erromara bizitzera, kale, tenplu edota estolda (*cloaca maxima*) berriak eraikitzeko asmoz, etruriarren ingeniariartzarako abildadea Erromaren berritze eta zabaltze prozesurako erabiliz. Mota honetako lanen burutzeak denboraldi luze batean aritzea suposatzen zuenez, Erromak jasan zuen etruriar populazioaren gehikuntza azpimarragarria izan zen ziur aski.

Garai honetan, erromatarrek etruriar alfabetoa nahiz jainkoak bereganatu zituzten<sup>8</sup>, etruriar kulturaren eragina handia izan zela adieraziz. Honekin batera, komertzioak lehen ez bezalako garrantzia hartu zuen, kultura bien arteko harremanak handituz joan zirelarik.

Nahiz eta hasiera batean eragin hau handia izan, mende bateko epean Erroman bizi zen etruriar populazioa latindarrak asimilatu zuen. Honela, hizkuntza arloan, etruriarraren eragina arlo erlijioso edota teknikoan eman zen batik bat, eta ez, adibidez –behintzat, dakigunez–, juridikoan.

Berezko elebitasun egoera, greziarrarekin eman zen. Kultura latindar eta greziarraren arteko harremanak antzinatik eman ziren, hego Italiako (*magna graecia* zelakoa) populazioak greziarra baitzuen berezko hizkuntza bezala. Baina greziar kulturak ez zuen, paradoxikoki, bere askatasuna galtzen zuen heinean, K.a. II. mendera arte bere eraginaren potentziala demostratu.

Garai honetan, Erromak indar osoz adierazi zuen bere zabalkuntza inperialista. K.a. 168-148ra bitarteko mendeetan, Erromaren etorkizunerako funtsezko bi guda suertatu ziren: Hirugarren guda mazedoniarra eta geroago emandako matxinadak, hain zuzen ere. Garaipena lortu eta Grezia zein Mazedonia menderatu ostean, milaka grezieradun (150.000, gutxi gorabehera, iturri batzuei jaramon egiten badiegu) morroi edota bahitu moduan bidali zituzten Erromara. Egoera honek eragin izugarria izan zuen. Alde batetik, morroi kopuruaren handitzeak berrikuntza garrantzitsuak ekarri zituen lege-gintzan<sup>9</sup>. Bestalde, morroi hauen hizkuntza greziera

zenez, elebitasun behartu bat eraman zen Erromara. Are gehiago, Kartago suntsitu ostean (K.a. 146), Erroma Mediterraneoan potentzia bakar bihurtu zen, merkatari guztiak –eta batez ere greziarrak– erakarri zituelarik. Honi greziar kulturak zeukan prestigioa batzen badiogu, erraza da greziar kulturak hartu zuen garrantzia ulertzea. Hizkuntza arloan, eragin hau elebitasunean itzuli zen.

Elebitasun hau bi gradutan eman zen Hirian. Alde batetik, goi klaseek latina zeukaten ama hizkuntza bezala, grezierak prestigiozko hizkuntza jantzi baten lekua betetzen zuen bitartean. Bestalde, gehiengo osatzen zuen biztanleria xeheak –morroiak barne– ez zuen latina ama hizkuntza bezala, bere jatorrizkoa baizik; biztanleria honen greziar kopurua handia zenez, eta ekialdetik zetozen askok jadanik greziera zekitenez, hizkuntza hau populazio sektore honen *lingua franca* bilakatu zen. Mendeak pasa beharko ziren eragin hau gutxitua ikusteko, batez ere eliza katolikoaren latinaren erabileraren ondorioz<sup>10</sup>.

Bestalde, arlo juridikoan, elebitasun honek bi mailatan izan zuen eragina. Senatuan bertan greziararen erabilera ez zen guztiz ezezaguna; bestalde, greziar populazioak erabiltzen zituen instrumentu juridikoak erromatar sistemak bereganatu zituen, kontratu ugari grezieraz idazten zirelarik<sup>11</sup>. Eta ez bakarrik kontratuak; oinordetza arloan, *fideicommissa*-ak hartu zuen garrantziaren muina hizkuntza forma askatasunean aurki genezake, grezierak latinak zeukan garrantzi berbera baitzuen<sup>12</sup>.

Esan bezala, greziera izan zen hasiera batean latina hitz egiten ez zuen populazioak erabiltzen zuen ohiko hizkuntza. Baina honek ez du inolaz ere esan nahi Erroman bertan beste hizkuntzarik erabiltzen ez zenik.

Erromara iristen ziren etorkinek multzotan bizitzeko joera logikoa zutenez, mantendu egin zituzten beraien hizkuntzak<sup>13</sup>. Ez dirudi, ordea, hizkuntza hauek Hirian bertan maila juridiko batean eragina izan zutenik.

8. TXURRUKA, Juan. *Zuzenbide Erromatarren sarrera historikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994; 30-32 orr.

9. Manumisioengan zegoen askatasuna murriztuz, *Lex Fufia Canina* (K.a. 2) eta *Lex Aelia Sentiarum* (K.o. 4) bitartez. Ikus TALAMANCA, Mario. *Istituzioni di Diritto Romano*. Milano: Giuffrè editore, 2001; 96-97 orr.

10. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 510-511 orr.

11. Gaius-ek, bere Institutatan (3,134), hauetariko bi kontratu mota bereizten ditu, *Syngrapha* eta *Chirographa*, zeintzuek *genus obligationis proprium peregrinorum* baitziren -hau da, peregrinoen (erromatar hirirtasuna ez zeukaten biztanleak) berezko obligazio mota bat-. Nahiz eta kontratu hauek batez ere ekialdean eman, mendebaldean ere eragina nabaria izan zuten. TALAMANCA, Mario. *Istituzioni di Diritto Romano*. Milano: Giuffrè editore, 2001; 579. or.

12. Argi azaltzen da Digestoan, Ulpianusen hitzetan. D 32.11pr. (Ulpianus 2 fidei.): "*Fideicommissa quocumque sermone relinquere possunt, non solum latina vel graeca, sed etiam punica vel gallicana vel alterius cuiuscumque gentis*" (Fideikomisoak edozein hizkuntzatan eman daitezke, ez bakarrik latin edo greziarrean, baizik eta baita punikoan, galikoan edo beste edozein herrirenean ere). *Non solum latina vel graeca* hitzekin argi adierazten du Ulpianusek kasu honetan bi hizkuntza hauen erabilpena plano berdinean ematen zela. Bestalde, araudi eta dokumentu ugari bi hizkuntzetan idatzi ziren; adibidez gisa, K.a. I. mendean argitaratutako pirateriaren aurkako legedia edota *Res gestae divi Augusti* direlakoak ditugu, zeintzuen lekuko ugari ezagutzen baititugun beren grezierazko bertsioan. Azpimarragarriak izango liriteke, baita ere, kontsulta juridikoei enperadoreek emandako erantzunak (reskriptoak), sarritan grezieraz ematen baitziren. TXURRUKA, Juan. "Lenguas y Derecho en la antigüedad". In: *Eleantitasuna eta teknika legegelea*. Gasteiz: Eusko Jaurjaritza, 2001; 27-28 orr.

13. Esan bezala, greziera *lingua franca* moduan erabiliz. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 514. or.; PANOSA, Isabel. "Elementos sobre la fase de bilingüismo y latinización ibérica". In: *La Hispania prerromana*. Coimbra, 1994; 218. or.

Judutarren kasua berezia da, gozaten zuten estatusak beren ohitura, errito eta, azken finean, hizkuntza kontserbatzeko erraztasuna ematen baitzien. Jatorria zela-eta –Palestina greziar eraginaren esparruan baitzegoen–, judutarrek sarritan erabiltzen zuten greziera, sinagogatako liturgiatan adibidez. Agian honegatik, oso gutxi dira aramearrez idatziriko dokumentuak<sup>14</sup>.

Beste hizkuntzei dagokionez, ez zuten eragin azpimarragarririk izan, gehiengoak ez zuelako berezko idazkerarik. Palmirarrek, adibidez, hasiera batean etxerako bakarrik erabiltzen zuten beraien ama hizkuntza, eta kanpoko arazoetarako greziera. Belaunaldi gutxiren ostean, palmirarra galdu eta latina erabiltzen hasi ziren<sup>15</sup>.

Honela, biztanleriaren gehiengoak, denbora gutxian jasandako latinizazio prozesua eta gero, beraien artean suertaturiko harreman juridikoetan latina eta, neurri txiki batean greziera erabiltzen zituzten hizkuntza estandar bezala.

### 3. Erromatar inperioa

Erroma Hiriko egoera alde batera utziz, Italiako beste lurraldeetan latinizazioa gogorragoa izan zela esan beharko genuke, batez ere administrazioaren batasuna eta kolonia berrien sorrera zela-eta. Jatorrizko hizkuntzen aztarnak ez dira ugariak, batez ere inskripzio juridikoei dagokionez. Ipar Italiako lurraldea guztiz erromanizatuta zegoen Augustoren garairako, eta jatorrizko hizkuntzen aztarnak hilarrietan aurki daitezkeenetara mugatzen dira<sup>16</sup>.

Erroman bizi zen populazio etruriarra asimilatu ostean, eta Erromaren eragina handituz zihoran heinean, lehen boteretsu izandako Etruriaren eragina asko murriztu zen. Etruriar lurraldearen latinizazioa arrapaladan eman zen, dirudienez, nahiz eta latinez idatziriko lehen inskripzioak K.a. VII. mendekoak izan. Hegoaldean, bi mendetan zehar jasan zuen eraginaren ondorioz, prozesua gutxika eman zen. Baina, bestalde, iparraldeak, non latindar eragina txikiagoa izan zen *latium*-etik urrutirago zegoelako, K.a. 90. urtean erromatar hiritartasuna lortu eta gero, latinizazio prozesu biz-

kor bat jasan zuen, eta etruriar hizkuntza –indoeuropar eremutik kanpo zegoena, eta gaur egungo enigma linguistiko garrantzitsuenetariko bat bilakatu dena– belaunaldi batean desagertu zen<sup>17</sup>.

Italiar penintsulako beste lurralde batzuetan salbuespen batzuk aurki ditzakegu, adibidez Umbria aldean, non, dirudienez, jatorrizko instituzio batzuek K.o. I. mendera arte iraun zuten, marones zirelako hiri magistratuak bezala<sup>18</sup>. Eta, noski, hegoaldean, *magna graecia*-n, non greziera mantendu egin baitzen erromatar inperioaren suntsiduraren ostean. Baina, salbuespen hauek alde batera utziz, esan bezala, Italiaren erromanizazioa guztiz burutu zen K.o. I. mendean.

Inperioaren mendebaldeko beste lurraldeetan, latinizazioa era eta gradu ezberdinetan eman zen, eta berezko institutuen biziraupenak manifestazio ezberdinak izan zituen.

Iberiar penintsularen kasuan, lurraldearen zati naguseitan –kostaldean batik bat– garaiz eman zen erromanizazioa, batez ere bigarren guda punikoaren ostean –hau da, K.a. 202–. Erdialdeko eremuak, bestalde, prozesu motel bat jasan zuen, biztanleriak tradizio zaharrak mantendu baitzituen, nahiz eta hizkuntza galdu. Ipar ekialdean, egora guztiz ezberdina zen. Garai hartako dokumentuen eskasia dela-eta, (aurre)euskara<sup>19</sup> edota beste hizkuntza ipar iberiarrei buruzko informazioa oso murrizta da<sup>20</sup>.

Erromatar presentziak ez zuen, hasiera batean, iberiar penintsulako jatorrizko hizkuntza ezberdinen atzerakada suposatuta, eta elkarbizi egin ziren latinarekin. Denborarekin, ostera, kasu gehienetan latinaren eraginak besteen desagertzea ekarri zuen.

Vasconiari dagokionez, egoera desberdina zen. Ziur aski lurralde hauek pizten zuten interes eskasa zela-eta, ez zen latinizazio –ez nahastu erromanizazioarekin– prozesu garrantzitsurik eman<sup>21</sup>. Baina, bestalde, euskararen izaera ez indoeuroparrak eragina izan zuen bere biziraupenean, beste hizkuntza zeltiarrekin gertatu ez zen bezala<sup>22</sup> –iberiarra desagertzearen arrazoiak, kokatzen zen eremuan aurki genezake, Erromaren eraginaren muinean–.

14. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 514-515 orr.

15. Ikus, orokorrean, EQUINI SCHNEIDER, Eugenia. "Palmireni a Roma e nell'Africa del nord". In: *Atti del Colloquio interdisciplinare*. Pisa, 1987.

16. TXURRUKA, Juan. "Lenguas y Derecho en la antigüedad". In: *Eleaniztasuna eta teknika legegilea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 2001; 25. or.; POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 518-519 orr.

17. CRISTOFANI, Mauro. "Le prime iscrizioni latine dell'Etruria". In: *Caratteri e diffusione del latino in età arcaica*. Pisa: Giardini editori e stampatori, 1993; 25-28 orr.; POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 520. or.

18. Elebitasuna adierazten duen dokumenturik garrantzitsuena, oskoz eta latinez idatziriko *lex Osca tabulae Bantinae* delakoa da. Ikus TXURRUKA, Juan. "Lenguas y Derecho en la antigüedad". In: *Eleaniztasuna eta teknika legegilea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 2001; 23. or.

19. Honi buruz, ikus GORROCHATÉGUI, Joaquín; LAKARRA, Joseba A. "Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco". In: *La Hispania prerromana*. Coimbra, 1994; 101-145 orr.

20. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 523-524 orr.

21. Nahiz eta latinaren eragina euskararen hedapenean garrantzitsua izan. Ikus MITXELENA, Koldo. "Basque et roman". In: *Via Domitia*. Toulouse: Centre régional de documentation pédagogique, 1957; 13. or.

22. Hizkuntzen arteko asimilazioa errazagoa delako bien arteko senidetasun bat dagoenean, euskararekin gertatu ez zena; ikus MITXELENA, Koldo. "Romanización y lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 161. or.

Jatorrizko institutu juridikoei dagokienez, datuak guztiz eskasak dira. Adibidez, 1596ko dokumentu batean ibar-jaunari buruz mintzatzen da –dokumentuan gaztelaniaz *merino* bezala itzultzen dena, nahiz eta, dirudienez, beste ezaugarri batzuk eduki–; hala eta guztiz ere, aro modernoari dagokion aipamen bat da. Bestalde, *ugazaba* hitzak ziur aski beste esanahi zabalago bat zeukan aitzin aroan<sup>23</sup>. Aurre-euskararen berreraikuntza zaila bada, jatorrizko instituzioena Sisiforen lanarekin konpara genezake.

Hori bai; esan bezala, elizak latinizazioa bateratze instrumentu bezala erabili zuenez<sup>24</sup>, euskararen izatea bera Vasconiaren kristautze berantiarren froga izango litzateke<sup>25</sup>.

Zeltar hitzun beste europar lurraldeek latinizazio partziala jasan zuten aro honetan. Galliako hegoaldeak greziar kulturarekin kontaktu garaia izan zuen, batez ere Massiliako portuaren bidez. Erromatar merkatariek, errepublikaren azken garaian batik bat, Massiliarekin harreman komertzialak sakontzen zituzten neurrian, latinizazio prozesua geldiezia izan zen. Honela, Mediterraneoko portu hau hizkuntza berrien ate bezala har genezake –gaur egungo Marseillan gehien hitz egiten den bigarren hizkuntza frantsesa dela diote...–.

Beste galiar lurraldeek, berriz, kasu gehienetan latinizazio prozesu inposatu bat jasan zuten. Druiden eraginetik urruntzeko asmoarekin, erromatarrek eskolak sortu zituzten, batez ere nobleziaren gazteei zuzendurik, klase buruzagiak erromanizatzeko asmoarekin. Hala eta guztiz ere, erdi aldeko Galliak ez zuen latinizazio osoa Erdi Arora arte jasan, beste lurraldeetan gertatu zen bezala elizaren eragina zela-eta. Honela, zeltarren biziraupena gutxienez K.o. VI. mendera arte luzatu zen<sup>26</sup>.

Britainiari dagokionez, honek ere latinizazio prozesu erdi inposatu bat jasan zuen, erromatarrek Gallian erabilitako bideak erabili baitzituzten, hau da, bertako noblezia gaztearen latinizazioa<sup>27</sup>. Hala eta guztiz ere, hirietatik at mantendu egin zen jatorrizko hizkuntza. Nahiz eta gaur egungo Britainian zeltarren egoera latza izan, bere iraupena, inperioko beste lurraldeekin konparaturik,

latinizazioaren eraginaren ahultasunaren froga bezala har daiteke.

Iberiar penintsulak, Galliak eta Britainiak jasaten duten egoera erraz konpara daiteke ipar Afrikan ematen denarekin, latinizazio prozesua lurralde batzuetan soilik eman zelako<sup>28</sup>. Barrualdeko landatar eremuak bere pertsonalitatea mantendu zuen, batez ere bereber populazioari zegokionez. Esan bezala, punikoak gutxienez K.o. II. mendera arte iraun zuen hizkuntza ofizial bezala<sup>29</sup>, Ulpianusen hitzek adierazten dutenez<sup>30</sup>.

Honetaz gain, inskripzio puniko edota latino-punikoak ugariak dira, batez ere eraikin publikoetako dedikazioak. Bestalde, dokumentu ofizial ugari gordetzen dira, non kartagotar magistratuen aipamenak aurki daitezkeen; nolana, aipamen hauek ez dute instituzio hauen biziraupena suposatzen, erromatar magistratura eta funtzio ezberdinen itzulpen eta egokitzapena baizik<sup>31</sup>.

Punikoaren biziraupena ez zen ipar Afrikan bakarrik eman. Kontuan hartu behar da feniziar eta kartagotarrek Iberiar penintsulan izandako presentzia oso garrantzitsua izan zela mendeetan zehar. Honela, Ulpianusen hitzak, ziur aski, Iberiara ere aplikatu daitezke, non puniko hizkuntzaren izaera luzez mantendu baitzen Kartagoren suntsiketaren ondoren<sup>32</sup>.

## 4. Konklusioak

Esandakoaren laburpen gisa, orokorrean, erromatarrek hizkuntzekiko zeukaten jarrera malgua zela esan genezake. Salbuespen batzuekin, latinizazioa prozesu natural bat izan zen, egokitasunean oinarritzen zena; hasiera batean *lingua franca* bezala erabili zen hizkuntza, denborarekin inperioko mendebaldeko biztanleriaren kopuru handi baten ama hizkuntza bihurtu zen. Latina beharrezkoa zen mota guztietako harremanetarako, batez ere inperioa hedatzen zen neurrian. Latinizazio prozesu hau eliza katolikoak burutu zuen, bateratze elementu bat bezala erabiliz.

Ikuspegi juridikoa kontuan harturik, argi ikusten da instituzio eta hizkuntzaren arteko erla-

23. MITXELENA, Koldo. "Romanización y lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 162. or.
24. MITXELENA, Koldo. "Sobre el pasado de la lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 35-42 orr.
25. MITXELENA, Koldo. "Romanización y lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 164. or.
26. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 528-530 orr.
27. POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW* 29-2. Berlin, 1983; 533. or.
28. Hau da, hirietan.
29. Berez, gutxienez V. mendera arte iraun zuen, Iponako Agustinen hitzak kontuan harturik. KOCH, Michael. "Pervivencia del sustrato púnico en la península". In: *Actas del I coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1976; 194. or.
30. Gorago aipaturiko testua, D 32.11pr. (Ulpianus 2 fideic.)
31. AMADASSI GUZZO, Maria Giulia. "Cultura punica e cultura latina in Tripolitania. Osservazioni in base alle iscrizioni puniche e alle iscrizioni bilingui". In: *Atti del Colloquio interdisciplinare*. Pisa, 1987; 24-33 orr.
32. KOCH, Michael. "Pervivencia del sustrato púnico en la península". In: *Actas del I coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1976; 191-194 orr.

zioa. Hizkuntza desberdinak desagertzen zihoa-zen heinean, bertako instituzioei egindako erreferentziak murriztuz joan ziren. Honela, kasu gehienetan, latinizazio linguistikoa eta erromanizazio juridiko eta politikoa elkarrekin agertzen dira. Latinak, elementu baztertzaila bat ez bezala, funtsezko paper bat jokatu zuen inperioaren hedapenean, geroago eliza katolikoarekin gertatuko zen bezala. Erromatar inperioaren suntsipenaren ondoren datozen germaniar erresumek, Erromaren boterearen lekua hartzen duten barba-roek, latina erabiliko dute hizkuntza legegile bezala, erromatar instituzioak bereganatu eta beraien beharretara egokituz.

## Bibliografia

- AMADASSI GUZZO, Maria Giulia. "Cultura punica e cultura latina in Tripolitania. Osservazioni in base alle iscrizioni puniche e alle iscrizioni bilingui". In: *Atti del Colloquio interdisciplinare*. Pisa, 1987; 23-33 orr.
- CRISTOFANI, Mauro. "Le prime iscrizioni latine dell'Etruria". In: *Caratteri e diffusione del latino in età arcaica*. Pisa: Giardini editori e stampatori, 1993; 25-28 orr.
- EQUINI SCHNEIDER, Eugenia. "Palmireni a Roma e nell'Africa del nord". In: *Atti del Colloquio interdisciplinare*. Pisa, 1987; 61-66 orr.
- GORROCHATEGUI, Joaquín; LAKARRA, Joseba A. "Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco". In: *La Hispania prerromana*. Coimbra, 1994; 101-145 orr.
- KOCH, Michael. "Pervivencia del sustrato púnico en la península". In: *Actas del I coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1976; 191-199 orr.
- MITXELENA, Koldo. "Romanización y lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 156-165 orr.
- MITXELENA, Koldo. "Basque et roman". In: *Via Domitia*. Toulouse: Centre régional de documentation pédagogique, 1957; 12-25 orr.
- MITXELENA, Koldo. "Sobre el pasado de la lengua vasca". In: *Sobre historia de la lengua vasca I*. Donostia: Seminario Julio Urquijo, 1988; 1-73 orr.
- MITXELENA, Koldo. "Las lenguas y la política". In: *Lengua e historia*. Madrid: Paraninfo, 1985; 179-191 orr.
- PANOSA, Isabel. "Elementos sobre la fase de bilingüismo y latinización ibérica". In: *La Hispania prerromana*. Coimbra, 1994; 217-246 orr.
- POLOMÉ, Edgar C. "Linguistic situation in the western provinces". In: *ANRW 29-2*. Berlin, 1983; 509-553 orr.
- RASCÓN, César. *Manual de Derecho Romano*. Madrid: Tecnos, 2000.
- TALAMANCA, Mario. *Istituzioni di Diritto Romano*. Milano: Giuffrè editore, 2001.
- TXURRUKA, Juan. *Zuzenbide Erromatarren sarrera historikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994.
- TXURRUKA, Juan. "Lenguas y Derecho en la antigüedad". In: *Eleaniztasuna eta teknika legegilea*. Gasteiz: Eusko Jaurjaritza, 2001; 23-38 orr.

